



KORRIKA

Ostegunean, apirilak 4, 21. Korrika abiatuko da Garestik eta apirilaren 10ean, asteazkena, Lau-diotik igaroko da.

Aurtengoan goiz partean dator Korrika gura, Ikastolarako sarrera ordutegian hain zuzen ere. Hori dela eta, Korrika txikia antolatu behar-rean, herriko ikastetxe guztion artean Korrikan parte hartzea adostu da.

IKASTOLAREN KILOMETROA

Laudio Ikastolak **1.389 kilometroan** hartuko du lekukoa. **Hitzordua 8:30ean jarri dugu, Zumalakarregi etorbidea eta Jose Arrue margolariaren kalearen arteko gurutzadan, botika aurrean, eta bertan ikasle, guraso eta langile guztiak parte har dezazuela proposatzen dizuegu kamiseta urdiñak jantzita.**

LEKUKOA

Lekukoa eramatearen ardura bertoratuko diren familien artean zozkatuko dugu. Parte hartu nahi duzuen familiok izena eman ondorengo formularioan:

izena eman



Goiz horretan antolaketa berezia izango dugu: **ohiko eskola jarduna 10:00ak arte atzeratuko dugu** nahi duzuen guztiok Korrikan parte har dezazuen. Edozein arazo dela eta ikasleak Korrika egitera lagundu ezin duten familiek Ikastola zabalik izango dute ohiko ordutegian, horretarako ikasleak zaintzeko zerbitzua izango dugu 10:00ak arte sarrera malguarekin. Zerbitzu asistentziala betiko moduan bermatuko da.

GARRAIOA

Zeberiotik datorren autobusak ohiko ordutegia izango du. Korrikan parte hartuko duten familiei, goiz horretan zerbitzua ez dutela erabiliko zelariari aurretik jakinaraztea eskatzen diegu. Bestetik Amurrio eta Balmasedatik datozen autobusen ordutegia 10:00etarako Ikastolara heldu daitezen egokituko da.

HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako familiei ikasleekin batera Korrikan parte hartzea eta ondoren Ikastolara etortzea proposatzen dizuegu. Ikasleekin batera Korrikan parte hartzea ezinezkoa baduzue, Ikastola irekita egongo da ohiko ordutegian.



21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntza etapa bi taldetan banatuko dugu:

1., 2. eta 3. mailako ikasleekin Haur Hezkuntzakoekin bezala jokatu dugu, hau da, familian parte har dezazuela proposatzen dizuegu. Ikasleekin batera Korrikan parte hartzea ezinezkoa baduzue, Ikastola irekita egongo da ohiko ordutegian.

4., 5. eta 6. mailan berriz, ikasleek maila irakasle eta familiekin batera Korrikan parte hartzea proposatzen dizuegu. Horretarako, gurasoen laguntza ezinbestekoa izango da.

Tutoreek papereko galdetegia banatuko dute parte hartzea nolakoa izango den jakiteko.

BIGARREN HEZKUNTZA

Eskola jarduna 10:00etan hasiko denez, Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiei Ikastolako kilometroan parte hartzeko gonbita luzatzen diegu.

SELFIE LEHIAKETA

Ikastolaren kilometroan bilduko garen guztion artean selfie lehiaketa burutzea proposatzen dizuegu. Atera familia edo lagun arteko argazkia Korrikaren zain edo lasterketa barruan zaudetela eta **635 71 67 86** whatsapp-era bidali.

Bidalitako argazki guztien artean Zuhaitza liburudendan euskarazko ipuin, komiki edo elaberririak erosteko 50 euroko bonoa zozkatuko dugu. Animatu eta parte hartu!



KORRIKA

La Korrika arranca este jueves, 4 de Abril, desde Gares y el 10 de abril, miércoles, pasará por Laudio.

Este año pasará por la mañana, justo a la hora de entrada a la Ikastola. Por ello, en lugar de organizar la Korrika txiki, todos los centros educativos de Laudio participaremos directamente en la Korrika.

KILÓMETRO DE LA IKASTOLA

Laudio Ikastola tomará el testigo en el **kilómetro 1.389**. La cita será a las **8:30 en la farmacia del cruce entre Zumalakarregi y la calle Pintor José Arrue**. Os proponemos participar a todo el alumnado, familias y trabajadoras y trabajadores vistiendo camisetas azules.

TESTIGO

Sortearemos entre las familias que participéis en el kilómetro llevar el testigo de la Korrika. Las familias interesadas deberán rellenar el siguiente formulario:

izena eman 

Esa mañana adaptaremos el funcionamiento de la Ikastola: **la actividad escolar comenzará a las 10:00** para facilitar la participación en la Korrika. Las familias que por cualquier motivo no puedan participar con sus hijas e hijos en la Korrika tendrán abierta la Ikastola en el horario habitual, donde organizaremos un servicio de atención al alumnado hasta las 10:00 con entrada flexible. Se mantendrá además el servicio asistencial.

TRANSPORTE

El autobús que viene de Zeberio tendrá el horario habitual. Rogamos a las familias que vayan a participar en la Korrika que comuniquen a la celadora que esa mañana no utilizarán el servicio. Los autobuses de Amurrio y Balmaseda adaptarán su horario para llegar a la Ikastola a las 10:00.

EDUCACIÓN INFANTIL

Proponemos a las familias de Educación Infantil participar en la Korrika junto con el alumnado y a continuación acudir a la Ikastola. La Ikastola permanecerá abierta en el horario habitual para aquellas familias que no puedan acompañar al alumnado en la Korrika.



21. korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

EDUCACION PRIMARIA

Dividiremos Educación Primaria en dos grupos:

1º, 2º y 3º participarán como en Ed. Infantil, es decir, el alumnado participará con su familia y la Ikastola permanecerá abierta en el horario habitual para aquellas familias que no puedan acompañar al alumnado en la Korrika.

4º, 5º y 6º podrán participar por cursos junto a su familia y el profesorado. Para ello será necesaria la colaboración de padres y madres.

Tutoras y tutores repartirán un formulario para conocer cómo participará cada alumna o alumno.

EDUCACIÓN SECUNDARIA

Al iniciarse la actividad escolar a las 10:00 invitamos a todo el alumnado de Educación Secundaria a participar en el kilómetro de la Ikastola.

CONCURSO DE SELFIES

Os proponemos realizar un concurso de selfies entre todas las personas que nos reuniremos en el kilómetro de la Ikastola. Haceros un selfie en familia o con amigas y amigos mientras esperáis la Korrika o participando en la carrera y enviadlo al whatsapp 635 71 67 86.

Entre todas las fotos recibidas sortearemos un vale de 50 euros para comprar en la librería Zuhaitza cuentos, cómics o novelas en euskera. Animate eta parte hartu!